



## Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

## Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / El Alcalde Andoni Alvarez Lete

## Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu	Marta Lasa Goñi
	Xabier Fondón Pajares
	Garazi Usandizaga Zubiria
	Iosu Mateo Torrillos
	Haizea Barandiaran Zubillaga
PSE-EE	Diego Barrasa Ruiz
	Larraitz Arriola Larrarte
	José Luis Verdasco Gutierrez
	Ascensión Parrón Peguero
EAJ-PNV	Aritz Alkain López
	José Antonio Fernández Da Purificação
	Imanol Goenaga Egibar
Elkarrekin Podemos	Idoia Mikelez Alonso
	Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia	00000012
Eguna	2025/12/18
Hasiera	19.00
Amaiera	19.08

## Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

## Interpretaria

Jon Unanue Lopez

## Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

María Belén Moreno Méndez – PSE-EE

M<sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández – EAJ/PNV

Myriam Lizaso Arruabarrena – Kontuhartzailea

## Gai Zerrenda:

- 2025/10/30ean eta 2025/11/27an egindako batzarren akten zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

## Xedapenak

- Leitzaran ibaiaren ondoan dagoen pasealekua "Andre Gobadagileen pasealekua" izendatzeko proposamena.
- Kale Berria jarraituz, Leitzaran ibaiaren gainean pasatzen den zubia "Grazia Garagorri zubia" izendatzeko proposamena.
- Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentuaren aldaketa puntuala Sorabilla industrialdea 28 HEA hirigintzako esku-hartze eremuari dagokiona, hasieran onartzeko proposamena.
- Langileei lansariak %2,5eko ordainsari igoera osagarria, 2025ko urtarrilaren 1etik aurrerako

## Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, de los borradores de las actas de las sesiones celebradas el 30/10/2025 y el 27/11/2025.

## Parte Dispositiva

- Propuesta de denominación al paseo junto al río Leitzaran como Andre Gobadagileen pasealekua .
- Propuesta de declaración como Puente Grazia Garagorri al puente que discurre sobre el río Leitzaran siguiendo la calle Nueva.
- Propuesta para la aprobación inicial del documento de modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain correspondiente al ámbito de intervención urbanística AIU-28 Polígono Industrial Sorabilla.
- Propuesta de incremento retributivo complementario del 2,5% con efectos desde el



ondorioekin eta %1,5eko ordainsari igoera osagarria 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin onartzeko proposamena.

1 de enero de 2025 y del 1,5% con efectos del 1 de enero de 2026 al personal.

**Kontrola**

- 6. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2926 zenbakidunetik 3125 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 33. aktatik 35 aktara.
- 7. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

**Parte de Control**

- 6.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 2926 y la nº 3125 y de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local, en concreto los comprendidos entre el acta nº 33 al acta nº 35.
- 7.- Ruegos, preguntas y propuestas.

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

Alkateak ongi etorria eman die bertaratuei urte honetako azkenengo Udalbatzara. Jarraian, Belén Moreno eta M<sup>a</sup> Sagrario Ruiz zinegotziek beren alderdietako Aritz Alkain eta Imanol Goenagari hurrenez-hurren eskuordetu dizkietela beren bozkak.

**1. 2025/10/30ean eta 2025/11/27an egindako bileren aktak irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2025/10/30 eta 2025/11/27 datetako bazterraldiei dagozkien aktak irakurtzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontutan harturik, onartutzat eman dira.

**2. Leitzaran ibaiaren ondoan dagoen pasealekua “Andre Gobadagileen pasealekua” izendatzeko proposamena.**

Barandiaran andreak, Emakume eta Gizonen Berdintasuneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Ondo iruditzen bazaizue bigarren eta hirugarren puntuaren azalpena, orain egingo dut eta gero bozkak, aparte egingo ditugu.

“Bueno ba irailko osoko bilkuran onartu genuen Andre Gobadagileen pasealekuaren eta Grazia Garagorri zubiaren izendapenen prozedurari hasiera ematea. Proposamen hau egon da jendaurrean 30 egunez eta ez da erreklamaziorik egon, ez iradokizunik eta bestalde, Euskaltzaindiak, aldeko irizpena eman du.

“Horrek esan nahi du bete beharreko baldintzak betetzen ditugula. Beraz, orain bozkatuko duguna da, bai pasealekuaren eta bai zubiaren behin betiko izendapenaren proposamena.”

Andoingo Udala duela hamarkada bat baino gehiagotik ari da emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko jarduera politikoak bultzatzen, ez garelako benetako komunitate demokratiko baten esparruan biziko, berdintasun hori, legeek aldarrikatzen dutenaz haratago, eraginkorra egiten ez dugun bitartean.

Enpleguko diskriminazioarekin edo familia- eta lanbide-erantzukizunen banaketan dagoen orekarik ezarekin lotutako egoeretan genero-desberdintasuna onartzen dugu, baina zailagoa da gure egunerokotasuna garatzen dugun agertokietan antzematea. Toponimia da horren adibide. Gizonezkoen toponimo ugari daude, eta Andoainen bost kale eta plaza publikok baino ez dituzte emakumeekin lotutako izenik.

Andoingo kale-izendegian eta, oro har, bizi garen hiri eta herrietan emakumezko izen gutxi egoteak erro historiko sakonak dituen gizarte-egoera bati erantzuten dio; izan ere, mendeetan zehar, emakumeak, haien presentzia, ekarpena eta lana ikusezin bihurtu dira, maila guztietan. Horrela, historian zehar emakumeak familiaren eta zaintzaren barruan zeregin nagusi batera baztertu dira, eta bizitza



publikoarekin lotutako jarduerak egiteko aukera ukatu zaie: politika, artea, kultura edo zientzia. Beraz, kaleen izenen arteko desberdintasuna sexuen arteko desberdintasun historikoaren isla da, non espazio publikoa gizonak diseinatu duten, batez ere une historiko desberdinetan botere ekonomiko, politiko eta erlijiosoak zutenek.

Kaleen izenak tresna garrantzitsuak dira hiriak pertsona edo erreferentziatzeko kolektiboak oso modu ikusgarrian ezagutu ahal izateko. Azken urteotan, genero-ikuspegia duten berdintasun-politiken eta hirigintzaren harira, emakumeen izenak sartzen ari dira kale-izendegietan, batez ere kale eta plaza berriak izendatuz, baita orain arte izenik ez zuten espazio publikoetan ere. Andoainen, Algodonerako Emakumeen Plaza da horren adibidea, espazio publiko berri batean emakumeek gure udalerriko industria-hazkundera egin zuten funtsezko ekarpena aitortzen duena. Ildo berean, duela bi urte, “Plaza Morea Andreurdiñarena” izendatu zen ordurarte izenik ez zuen espazio publiko bat. Beraz, kale izendegia, genero ikuspegitik, orekatua izan dadin hainbat urrats ematen ari dira azken garaian.

Hala ere, ildo horretan aurrera egiten jarraitu behar da, eta gure udalerrian emakumezkoen izenak kaleetan eta espazio publikoan presentzia areagotzeko asmoz, proposamen hau egin da.

Udalerrian espazio publiko bat izendatzea proposatzen da, gaur egun izen ofizialik ez duena, zehazki, Santa Krutz eta Kale Berriari segida ematen dion zubiaren artean, Leitzaran Ibaiaren ertzetik doan pasealekua. Jon Unanuek 2023an egindako *Leitzaran ibaiaren gainean, kale berriak kokaturiko zubiaren izena* txostenean aipatzen duen moduan (Kale Berriaren) zubiaren eta Santa Krutz zubiaren arteko ibai-tartea, herriarentzat zerbitzugune izan da mendeetan, bereziki, gobada edo lixiba bertan egiten zuten auzoko emakumeentzat, bertako latsarrietan jo eta ikutzen baitzuten gobada –gobara andoaindarrentzat–, eta gaur egun hori dira, oraindik agerian, azken latsarriak Oria ibai ertzean, Gurutze Santuaren elizatoaren oinean. Horren arabera, aukera litzateke ere –baina guztiz berria, inongo ohiturarik gabea– Gobaragileen zubia edo Gobaragile zubia deitzea, mendetan ikuzte lan gogorra egin zuten emakume haien omenez”.

Beraz, landutako izendapen hau berreskuratzea egokia ikusten da, eta aipatutako pasalekuari Izendapen hori emateko proposamena egiten da, zehazki, **Andre Gobaragileen pasealekua** izango dena, eta ariketa honekin honako helburu hau bete nahi da: Emakumeek mendeetan ugalketaren eta zaintza-lanen esparruan egin duten ezkutuko eta baloratu gabeko lana aitortzea. Lan horiek oinarritzkoak dira gizakiaren eta gizarte-taldeengatik ongizaterako eta mantenuerako, eta aldiz, ez dute izan eremu publikoan inongo aitortzarik, eta ordainsaririk edota balio sozialik ere.

Izendapen honekin, Andoain inklusiboago baten eraketan urrats berriak eman eta bultzatu nahi dira, bere espazio publikoetan berez, bere kaleetan dagoen aniztasuna jaso eta islatuko duena. Aitortu ditzala emakumeen, izan zirenen, direnen eta izango direnen ekarpen eta borroka desberdinak, gure udalerrira begiratzean bertan bizi eta beraien burua aitortua ikusi ahal izateko.

Hori guztia ikusirik, eta 1690/1986 Errege Dekretuaren, uztailearen 11koa, Toki Erakundearen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duenaren 75. artikulua eta 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoari jarraiki.

Ikusirik, Euskara Sailak 2025/07/22an eta 2025/09/22an egindako txostenak.

Ikusirik, Berdintasun Zinegotzi Ahalduaren 2025/09/22 datako proposamena, zeinaren bidez, Herritarren Informazio Batzordearen irizpen zuzentzea proposatzen da Andre Gobaragileen ordez, Andre Gobadagileen izendapena hobetsiz, Euskara Lansaileko Teknikariak 2025/09/22 datan egindako txostenari jarraiki.

Andoingo Udalbatzak, 2025eko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

1.- *Santa Krutz eta Kale Berriari segida ematen dion zubiaren artean, Leitzaran ibaiaren ertzetik doan pasealekua, “Andre Gobadagileen pasealekua” izendatzeko prozedurari hasiera ematea.*

2.- *Espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagoen iragarkia argitaratuz, 30 laneguneko epean interesdunek espedientea aztertu eta bere kasuan dagoen iradokizun edo alegazioak aurkez ahal ditzaten.*

3.- *Euskaltzaindiari dagoen irizpena eman dezkan eskatzea.*



Ikusirik, Euskaltzaindiaren 2025eko irailaren 30eko aldeko irizpena.

Ikusirik, 2025/11/17ko udal idazkariaren ziurtagiria, jendaurrean jarri den denboraldian erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez dela adierazten duena.

Ikusirik, Herritarren Informazio-Batzorde Iraunkorraren 2025/12/11 datako proposamena.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Santa Krutz eta Kale Berriari segida ematen dion zubiaren artean, Leitzaran ibaiaren ertzetik doan pasealekua, **"Andre Gobadagileen pasealekua"** izendatzea.

2.- Espediente osoaren kopia bidaltzea EAE-ko Izendegi Geografiko Ofizialaren gaineko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzari, apirilaren 5eko 41/2022 Dekretuaren ezarritako prozedura osoa betetze aldera.

3.- Izendegia Euskal Autonomi Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean idazpetzen denetik aurrera izango da ofiziala, 179/2019 DEKRETUAREN 45.6 artikulua araber.

4.- Erabakia Euskara Lansailari jakinaraztea.

5.- Behin Izendegia Euskal Autonomi Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean idazpetzen denean, dagokion iragarkia eta aipatutako izendegiaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratzea, eta Andoingo Udaleko errolda eta erregistro guztietan onarturiko toponimo ofizialduak jasotzea.

6.- Halaber, eta behin Izendegia Euskal Autonomi Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean idazpetzen denean, izendegi berriak nolabait eragiten dien erakunde guztiei jakinaraztea (Jabetza Erregistroa, Katastroa, Posta Bulegoa, Estatistikako Institutu Nazionala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Departamentua, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Barne Ministerioa, konpainia elektrikoak, gasakoak, telefoniakoak eta abar), baita dagokien Udaleko lansail guztiei ere, behar diren aldaketak egin daitezzen. Era berean, erabakia jakinaraztea Udaleko Hirigintza eta Ingurumen lansailari, dagozkion seinaleztapen lanak egin ditzan eta Estatistika lansailari ere, Biztanleen Erroldan dagozkion helbide-aldaketak egin ditzan.

### **3. Kale Berria jarraituz, Leitzaran ibaiaren gainean pasatzen den zubia "Grazia Garagorri zubia" izendatzeko proposamena. .**

Andoingo Udala duela hamarkada bat baino gehiagotik ari da emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko jarduerak politikoak bultzatzen, ez garelako benetako komunitate demokratiko baten esparruan biziko, berdintasun hori, legeek aldarrikatzen dutenaz haratago, eraginkorra egiten ez dugun bitartean.

Enplegu diskriminazioarekin edo familia- eta lanbide-erantzukizunen banaketan dagoen orekarik ezarekin lotutako egoeretan genero-desberdintasuna onartzen dugu, baina zailagoa da gure egunerokotasuna garatzen dugun agertokietan antzematea. Toponimia da horren adibide. Gizonezkoen toponimo ugari daude, eta Andoainen bost kale eta plaza publikok baino ez dituzte emakumeekin lotutako izenik.

Andoingo kale-izendegian eta, oro har, bizi garen hiri eta herrietan emakumezko izen gutxi egoteak erro historiko sakonak dituen gizarte-egoera bati erantzuten dio; izan ere, mendeetan zehar, emakumeak, haien presentzia, ekarpena eta lana ikusezin bihurtu dira, maila guztietan. Horrela, historian zehar emakumeak familiaren eta zaintzaren barruan zeregin nagusi batera baztertu dira, eta bizitza publikoarekin lotutako jarduerak egiteko aukera ukatu zaie: politika, artea, kultura edo zientzia. Beraz, kaleen izenen arteko desberdintasuna sexuen arteko desberdintasun historikoaren isla da, non espazio publikoa gizonen diseinatu duten, batez ere une historiko desberdinetan botere ekonomiko, politiko eta erlijiosoa zutenek.

Kaleen izenak tresna garrantzitsuak dira hiriak pertsona edo erreferentziatzko kolektiboak oso modu ikusgarrian ezagutu ahal izateko. Azken urteotan, genero-ikuspegia duten berdintasun-politiken eta hirigintzaren harira, emakumeen izenak sartzen ari dira kale-izendegietan, batez ere kale eta plaza berriak



izendatuz, baita orain arte izenik ez zuten espazio publikoetan ere. Andoainen, Algodonerako Emakumeen Plaza da horren adibidea, espazio publiko berri batean emakumeek gure udalerriko industria-hazkunderan egin zuten funtsezko ekarpena aitortzen duena. Ildo berean, duela bi urte, “Plaza Morea Andreurdiñarena” izendatu zen ordurarte izenik ez zuen espazio publiko bat. Beraz, kale izendegia, genero ikuspegitik, orekatua izan dadin hainbat urrats ematen ari dira azken garaian.

Hala ere, ildo horretan aurrera egiten jarraitu behar da, eta gure udalerrian emakumezkoen izenak kaleetan eta espazio publikoan presentzia areagotzeko asmoz, proposamen hau egin da.

Zehazki, udalerrian espazio publiko bat izendatzea proposatzen da, gaur egun izen ofizialik ez duena. Kale berriari segida emanez, 1894 eta 1895 artean, zubi berria eraiki zuten, Donostiatik Tolosara doan errepedeak Leitzaran ibaiara salba zezan Andoainen. Zubi horri Zubiberria (zubi berria) deitu zitzaion, baita Kaleberriko zubia ere, zubia zeharkatzen duen kalea, gaur egun duen izena. Nafarroako zubia izena ere erabiltzen da eta hain ohikoak ez diren beste izendapen batzuk ere izan ditu: Goikozubia (goiko zubia), Bekoplazako zubia.

Zubi hori **“Grazia Garagorri zubia”** izendatzea proposatzen da. Grazia Garagorri izan zen Andoainen dokumentatutako indarkeria matxistaren lehen biktima; bere senarrak hil zuen 1629. urtean, beraien etxean izan zuten liskar baten testuinguruan. Ezer gutxi gehiago dakigu beraz, eta horrek pentsarazten digu horrelako gertakari batek garrantzi publiko txikia izango zuela. Duela 400 urte, emakumeak indarkeria matxistaren biktimak ziren, gaur egun bezala, eta 400 urte hauetan, Andoingo milaka emakumek jasan dute beren gorputzetan sistema heteropatriarkalaren indarkeria, zeinak, forma ezberdinetan bada ere, indarrean jarraitzen baitu gaurko egunez. Ez dugu nahi ahanzturan erortzea, ez bera, ez indarkeria matxistari aurre egin dioten emakume guztiak, eta, horregatik, nahi dugu espazio publikoan erreferentzia bat izatea, beste harri bat izatea memoria historiko demokratikoa berreraikitzeke eta indarkeria matxisten biktimen erreparaziorako.

Beraz, proposatzen den zubi honen izendapenarekin hurrengo helburua bete nahi da: indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumei omentzea, beraien memoria historikoa berreskuratzea eta erreparaziorako urrats bat ematea, espazio publikoan beraien presentzia bermatuz.

Izendapen honekin, Andoain inklusiboago baten eraketan urrats berriak eman eta bultzatu nahi dira, bere espazio publikoetan berez, bere kaleetan dagoen aniztasuna jaso eta islatuko duena. Aitortu ditzala emakumeen, izan zirenen, direnen eta izango direnen ekarpen eta borroka desberdinak, gure udalerrira begiratzean bertan bizi eta beraien burua aitortua ikusi ahal izateko.

Hori guztia ikusirik, eta 1690/1986 Errege Dekretuaren, uztailearen 11koa, Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duenaren 75. artikuluari eta 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoari jarraiki.

Ikusirik, Euskara Sailak 2025eko uztailearen 22an egindako txostena.

Ikusirik, 2025ko uztailearen 30ean, Berdintasun Zinegotzi Ahaldunak, Kale Berria jarraituz, Leitzaran ibaiaren gainean pasatzen den zubia, “Grazia Garagorri zubia” izena emateko proposamena egin zuen.

Andoingo Udalbatzak, 2025eko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

1.- *Kale Berria jarraituz, Leitzaran ibaiaren gainean pasatzen den zubia, “Grazia Garagorri zubia” izendatzeko prozedurari hasiera ematea.*

2.- *Espedientea jendaurrean jartzera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, 30 laneguneko epean interesdunek espedientea aztertu eta bere kasuan dagozkion iradokizun edo alegazioak aurkez ezabab ditzaten.*

3.- *Euskaltzaindiari dagokion irizpena eman dezan eskatzea.*

Ikusirik, Euskaltzaindiaren 2025eko irailaren 30eko aldeko irizpena.

Ikusirik, 2025/11/17ko udal idazkariaren ziurtagiria, jendaurrean jarri den denboraldian erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez dela adierazten duena.

Ikusirik, Herritarren Informazio-Batzorde Iraunkorraren 2025/12/11 datako proposamena.

Gaia eztabaidara jarri da parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak, proposamena bozketara jarri du



eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Kale Berria jarraituz, Leitzaran ibaiaren gainean pasatzen den zubia, **“Grazia Garagorri zubia”** izendatzea.

2.- Espediente osoaren kopia bidaltzea EAE-ko Izendegi Geografiko Ofizialaren gaineko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzari, apirilaren 5eko 41/2022 Dekretuaren ezarritako prozedura osoa betetze aldera.

3.- Izendegia Euskal Autonomi Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean idazpetzen denetik aurrera izango da ofiziala, 179/2019 DEKRETUaren 45.6 artikulua araberera.

4.- Erabakia Euskara Lansailari jakinaraztea.

5.- Behin Izendegia Euskal Autonomi Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean idazpetzen denean, dagokion iragarkia eta aipatutako izendegiaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratzea, eta Andoingo Udaleko errolda eta erregistro guztietan onarturiko toponimo ofizialduak jasotzea.

6.- Halaber, eta behin Izendegia Euskal Autonomi Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean idazpetzen denean, izendegi berriak nolabait eragiten dien erakunde guztiei jakinaraztea (Jabetza Erregistroa, Katastroa, Posta Bulegoa, Estatistikako Institutu Nazionala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Departamentua, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Barne Ministerioa, konpainia elektrikoak, gasakoak, telefoniakoak eta abar), baita dagokien Udaleko lansail guztiei ere, behar diren aldaketak egin daitezten. Era berean, erabakia jakinaraztea Udaleko Hirigintza eta Ingurumen lansailari, dagozkion seinaleztapen lanak egin ditzan eta Estatistika lansailari ere, Biztanleen Erroldan dagozkion helbide-aldaketak egin ditzan.

#### **4. Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentuaren aldaketa puntuala Sorabilla industrialdea 28 HEA hirigintzako esku-hartze eremuari dagokiona, hasieran onartzeko proposamena.**

Alkate jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Dakizuen bezala, hau izango litzateke garai bateko Inquitex-eko bulegoak zeuden tokian eraikiko den edo eraiki nahi den hotelaren prozedurari hasiera emateko onespina edo Hirigintza Planari aldaketa puntual bat ematea onartzea proposatzen da. Aldaketa puntuala da. Zehazki, izango litzateke HAPOan aurreikusita zegoen jarduketara ekonomikorako erabileratik hotela egin ahal izateko erabilera tertziarioa ematea, prozedurak agintzen duen bezala, duela egun batzuk jende aurreko bilera deitu zen, bertara ez zen inor etorri eta gaur hona hasierako onespina dakarkigu.

“Hurrengo pausoak izango lirateke, alde batetik, buletinean argitaratu, esposizio publikoan jarri ahal izateko eta alegazioak egin ahal izateko epea irekitzea. Behin hori, prozedura hori eginda, dagozkion txosten sektorialak eskatuko lirateke.”

Kontuan harturik Zehon Arkitektoak SLP sozietateak, 2023ko ekainaren 9an, Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntual bat bultzatzeko aukerari buruzko hirigintza-kontsulta bat egin zuela, Sorabilla auzoko 219. zenbakian Inquitexeko bulego zaharrak zeuden lurzatiari hotel-erabilera bat ezartzeko. Horretarako, lurzatiaren eraikigarritasuna handitzea planteatzen zen.

Kontuan harturik 2023ko azaroaren 7an, udal-arkitektoak aldeko txostena eman ziola hotel-erabilera bat ezartzeko plangintzan aldaketa puntuala egiteko aukerari, uste baitzuen udalerraren interes orokorrari erantzuten ziola, hotel-hornidura handitu baitzuen, gaur egun gutxi baitago udalerrian, eta balioa eman baitzion Andoingo HAPOren Katalogoan jasota ez badago ere Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondareko teknikarien txostenaren arabera inbentariatzeko proposatutako eraikinen artean sartuko litzatekeen eraikin bati.

Kontuan harturik Xabier Irurzun Zabalak, Rainalet SLren izenean jardunez, 2024ko abuztuaren 2an



Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren zirriborroa aurkeztu zuela, "Industrial Sorabilla" 28 HIE hirigintzako esku-hartze eremuari buruzkoa, 2024ko uztailean idatzia.

Kontuan harturik 2024ko irailaren 9an, aldaketa puntualaren ingurumen-dokumentu estrategikoa aurkeztu zela, dokumentu horrek ingurumen-ebaluazio estrategikoa sinplifikatuaren prozedura bete zezan.

Kontuan harturik Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2024ko azaroaren 28an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntuala formulatzeko espedienteari hasiera ematea onartu zuela, "Sorabilla industrialdea" 28 HEA eremuan eta dagokion Herritarren Partaidetzarako Programari dagokionez. Aldaketa hori 2024ko abenduaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (243 zk.) eta udalaren webgunean argitaratu zen.

Kontuan harturik Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2025eko ekainaren 11ko Ebazpenaren bidez, Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa egin zela, "Sorabilla industrialdea" 28 HEA eremuan. Txosten hori 2025eko uztailaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (131. zk.) argitaratu zen.

Kontuan harturik Jorge Timoteo Unceta-Barrenechea Sistiagak, Rainalet SLren izenean, 2025eko ekainaren 25ean, Gurbain SLk 2025eko ekainean idatzitako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko beste dokumentu bat aurkeztu zuela, hasierako onarpena emateko.

Ikusirik Udal arkitektoak 2025eko uztailaren 7an emandako txostena, 2025eko uztailaren 9ko idazkiaren bidez, interesdunari jakinarazi zitzaion, hasierako onespenerako erabakia hartu aurretik, aurkeztutako dokumentua zuzendu behar zela, idazkian bertan adierazitako moduan. Idazkiarekin batera, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2025eko ekainaren 18an egindako txosten tekniko-sanitarioaren kopia bidali zen.

Kontuan harturik 2025eko uztailaren 21ean, Jorge Timoteo Unceta-Barrenechea Sistiagak hasierako onarpeneko beste dokumentu bat aurkeztu zuela, 2025eko uztailean idatzia.

Ikusirik Udal arkitektoak 2025eko azaroaren 3an emandako txostena, data bereko idazkiaren bidez interesdunari jakinarazi zitzaion, hasierako onespeneraren erabakia hartu aurretik, aurkeztutako dokumentua zuzendu behar zela, idazkian bertan adierazitako moduan.

Kontuan harturik 2025eko azaroaren 28an, Jorge Timoteo Unceta-Barrenechea Sistiagak hasierako onarpeneko dokumentu berri bat aurkeztu zuela, 2025eko azaroan idatzia.

Ikusirik 2025eko abenduaren 2an udaleko arkitektoak eta hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak egin dituzten aldeko txostenak, azken hau Udal Idazkari jaunak berretsia.

Ikusirik, Lurralde Batzorde Irizpenemailearen 2025eko abenduaren 9 datako irizpena.

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Hasierako izaerarekin onartzea Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren proposamena, "Industrial Sorabilla" 28 HEA hirigintzako esku-hartze eremuan. Gurbain SL enpresak 2025eko azaroan idatzi zuen eta 2025eko azaroaren 28an aurkeztu da Udaletxean.

2.- "Industrial Sorabilla" 28 HEA hirigintzako esku-hartze eremuan Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren hasierako onespenera gutxienez hilabeteko epean jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalerrian zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan eta Udalaren webgunean argitaratuz, aztertu eta bidezko alegazioak aurkeztu ahal izateko.

3.- Hasierako onespeneraren berri ematea sektore-eskumenak dituzten herri-administrazioei, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten.

4.- Txostena eskatzea Euskararen Udal Sailari, Euskadiko toki-erakundeek hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboaren normalizazioari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan aurreikusitako hizkuntza-inpaktuaren ebaluazio-txostena egitea bidezkoa den zehazteko.

5.- Erabakia udaleko Zerbitzu eta Ekonomia eta Ogasun sailei jakinaraztea



6.- Erabakia Railanet SL-ri jakinaraztea.

**5. Langileei lansariak %2,5eko ordainsari igoera osagarria, 2025ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta %1,5eko ordainsari igoera osagarria 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin onartzeko proposamena.**

Fondón jaunak, Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentzako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Azaroan Espainiar Gobernuak eta sindikatuak sinatutako esparru akordioa, Administrazio Publikoaren zerbitzuetan dauden langileen ordainsari igoera 2025 eta 2028 bitartekoa da eta Eudelen gomendioa jarraituta, dakarkigu bozkatzera.

“Beraz, 2025eko igoeran atzerapenak urtarrilean ordainduko dira ajusteean. 2026koa, igoera %2koa da, %1,5a urtarriletik aurrera aplikatuko da eta urte bukaeran, KPIa, Espainiako Gobernuak zehazten duen muga gainditzen badu, geratzen den %0,5a ordainduko da.”

Gaia eztabaidara jarri du Alkate jaunak eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo eta arratsalde on. En la comisión, en el informe de la interventora venía una anotación en la que se indicaba que no había partida presupuestaria suficiente para poder hacer este incremento. No sabemos si ha dado tiempo a solucionar ese problema y si es así, nos gustaría que nos lo aclarasen.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Gaur bertan egin du informea. Horren berri abenduaren 30ean egingo dugun Antolaketa Batzordean emango dugu, baina gaur bertan egin dugu eta bai idazkariak eta bai nik sinatu dugu gaur bertan.”

2025eko abenduaren 3ko datarekin BOEn argitaratu zen sektore publikoaren eremuko ordainsarien buruzko presazko neurriak onartzen dituen abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretua.

Kontuan izan behar da Espainiako Gobernuak eta UGT eta CSIF sindikatuek enplegu publikoa eta herritarrentzako zerbitzua hobetzeko 2025eko azaroaren 27an sinatutako esparru-akordioak administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoeraren urte anitzeko esparrua ezartzen duela, 2025etik 2028ra bitartekoa.

2025ean, sektore publikoko langileen ordainsarietako ehuneko 2,5eko gehieneko igoera globala izan dezakete 2024ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko. Zenbateko horiek 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legeak ezarri zituen, eta ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak eguneratu.

EUDEL-en 2025eko uztailearen 2ko gomendioa ikusita.

Ikusirik Langileria eta Prebentzioko Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako aldeko txostena.

Ikusirik, Antolaketa Batzordeak 2025eko abenduaren 11ko bileran emandako aldeko irizpena.

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak, proposamena bozketara jarri du eta Udalbatzaren Osoko Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

**Lehenengoa:** 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Udal honetako langileen ordainsarien % 2,5eko gehikuntza onartzea, abenduaren 31n indarrean zeudenekiko azken horietan barnean direla ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan jasotako ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria.

**Bigarrena:** 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Udal honetako langileen ordainsarien %1,5eko gehikuntza onartzea, 2025eko abenduaren 31ean indarrean zeudenekiko, 2025eko abenduaren 2ko 14/2025 errege lege-dekretuan onartutako ordainsarien igoera barne.

**Hirugarrena:** Erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**Laugarrena:** Erabaki honen berri ematea EUDEL, Euskal Herriko Udalen Elkarteari, sindikatuen ordezkarietara eta Kontuhartzailetza, Diruzaintza eta Langileria lansailei.



**6. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2926 zenbakidunetik 3125 zenbakidunera.**

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 2926 zenbakidunetik 3125 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**7. Galderak, eskaerak eta proposamenak.**

Alkateak galde erreguen txanda ireki du eta ez da parte-hartzerik izan.

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno ba urtea amaitzeko, udalbatza laburra egin dugu. Bai hemen zaudetenei eta bai herritarrei, gabonak ondo pasatzea opa dizuegu eta urtea ondo amaitu eta hobeto hasia. Mila esker deniei.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19.08 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.  
Alkatea

Idazkaria

